Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

422

Ekainak 1, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Irungo Atsegiñaren mendeurrena
4 Mensu Gunea
5 Dunboa euskaraz
6 Belaskoeneako bizikletak
7 Aquatic Landes
8 Kirolak: Landetxa futbol kluba
9 Kirolak: Emakumeak palan
10 Euroeskualdeko proiektuak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak / Irunabar elkarteko bertso sorta
13 Beti gazte: Euslider proiektua
14 iGazte
15 Agenda

Irungo Atsegiña elkartearen 100 urteko istorio erraldoia

- Adinekoentzako Egoitzak
- Egonaldi iraunkorrak
- Egonaldi motzak
- Erreabilitaziorako egonaldiak
- Aisaldi egonaldiak
- Konbalezentzia egonaldiak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela 100 urte argitaratutako El Bidasoa aldizkariak duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. Aldizkariko lehen testuan Horacio de Sarasquetak sagardotegi testuinguruan ikusitako idi proba bateko apustuaren adibidea erabiliz azaltzen du jokoa eta neurririk gabe edatea errefusatzen dituela. “Versos románticos” atalean, berriz, Yolek idatzitako Butroe gazteluari buruzko olerkia irakur daiteke. Jarraian, Miguel Berásteguik Ameriketatik Irungo gertaeren jarraipen estua egiten duela onartzen du, bide batez, San Estanislao ikastetxeko Guillermo Iguarán maisuak omenaldia merezi duela esateko. Orrialdearen amaieran, “Callejeando” atalean hainbat albiste labur biltzen dira. Batetik, gazteen heziketa desegokia eta errespetu falta etengabeak kritikatzen dira. Bestetik, hirian eraikitzen ari de etxebizitza kopuru handia aipatzen da.

Bigarren orrialdean, kirol kronikan, Real Union klubaren zuzendaritza batzorde berria aurkezten da. Ostean, Irunen haurrentzako futbol txapelketa bat antolatuko dela jakinarazten da. Era berean, hurrengo igandean hirian jokatuko diren futbol partiduen berri ematen da. “Notas del alarde” testuan alardearen etorkizunaz hausnartzeaz gainera, Zalditeriako Eskoltaren uniformea aldatu dela azaltzen da. Orrialdearen amaieran Sanmartzial festak iristeko gutxi falta dela agerian gelditzen da alpargaten salmentaren iragarkiarekin.

Hirugarren orrialdean “Notas municipales” atalean azken udal bilkuran hartutako erabakiak jakinarazten dira. “Ecos de sociedad” atalean, berriz, Irungo goi klaseko biztanleen bizitzekin lotutako nobedadeen berri ematen da, besteak beste, bidaiekin, ezkontzekin eta ikasketekin lotutako nobedadeak aipatuz. “Noticias” atalean, berriz, azken albiste labur batzuk biltzen dira aldizkaria amaitu aurretik.

38615: Iparraldeko etorbidea ireki eta hurrengo urteetan hartutako irudia, besteak beste, Kostorbeko geltokia eta Mendibilgo zezen plaza ikusten direlarik (1916. inguruan).

39167: Aranzateko burdinola

56592: Santa Elena iturria (XX. mendearen hasiera).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

100 urte Irunen aurpegi atseginena erakusten

100 urte bete dira hirian Irungo Atseginña izeneko elkartea sortu zenetik. Denbora horretan guztian asko dira elkartetik igarotako irundarren belaunaldiak. Izan ere, lagun arteko bazkarietarako eta afarietarako egoitza izateaz gain, Irunen antolatzen diren ekintza kulturalen atzean dago Irungo Atseginña. Jesús Rubio Pilarte elkarteko lehendakaria da eta, pandemia garai atsegina izan ez arren egungo egoeraren berri eman du.

100 urteren ostean Irungo Atseginña hirian ondo errotutako elkartea dela uste duzu?
Bai. Oso ezaguna da. Niretzat oso interesgarria da ikustea nola hiriarekin lotura duten abestietan nola aipatzen den elkartearen izena. Uste dut elkartearen izena arrazoi batengatik edo bestearengatik irundar guztien bihotzean dagoela.

Irunen antolatzen diren ekintza askoren atzean dago Irungo Atseginña, ezta?
Normalean urtero erregeen kabalgata antolatzen dugu. Inauterietan Kaldereroen konpartsa antolatzen dugu eta Inude eta Artzainen desfilean ere parte hartzen dugu. Irungo jaietan gure erraldoiak kalera ateratzen ditugu. Hain zuzen ere, esango nuke erraldoiak direla momentu honetan elkartearen ondarerik preziatuena. Abuztuan egiten den Euskal Jiran ere parte hartzen dugu. Urte bukaeran San Tomas ospatzeko ere zerbait egiten ahalegintzen gara.

Zein da egun elkarteak bizi duen egoera?
Orain, pandemiaren txarrena pasata, gure erritmoa berreskuratzen ari gara. Irungo eta Euskal Herriko beste elkarteetan bezala, pandemiaren eragina nabaritu dugu. Bidean bazkide batzuk galdu ditugu eta nola edo hala orain normaltasun apur bat berreskuratzen ari gara. Egoera ez da oso latza, baina kalteak nabaritu ditugu.

Zer behar du Irungo Atsegiñak pandemia aurreko egoera berreskuratzeko?
Egia da pandemiarekin bazkideen kopurua apur bat jaitsi egin dela. Pixkanaka, ordea, bazkideak berreskuratzen ari garela dirudi. Hala ere, oraindik ez da guztiz berreskuratu elkartearen erabilera arrunta eta hori da zehazki elkarteetako arduradunek nabaritzen duguna. Pentsatzen dugu datorren hilabetean, hiriko jaiak direla eta, ohiko giroa berreskuratuko dela, baina momentuz horrela gaude.

Elkartearen aro berri honetarako zuen buruari helbururik ezarri diozue?
Oraindik elkartearen mendeurrena ospatzeko ekintzak prestatzen ari gara. Momentuz ez dugu ezer esango, dena ezkutuan antolatzen ari gara eta. Adibidez, maiatzaren 22an 2020. eta 2021. urteetako Irungo Erraldoiak sariak banatu genituen, pandemiaren ondorioz atzeratu behar izan genuelako ekitaldi horren ospakizuna. Pandemiaren ostean elkartean antolatutako lehen ospakizun ekintza handia izan da eta hemendik aurrera mendeurrena ospatzeko beste hainbat ekintzat egingo ditugu. Ekainaren lehenbiziko egunetan emango dugu hirian egingo diren ekintza horien berri.

Atzeratutako Irungo Erraldoien sarien banaketak esperotako arrakasta izan zuen?
Oso egun hunkigarria izan zen. Ekitaldi oso polita izan zen eta eguraldi onak ere lagundu zigun. Egun horretan erraldoiak kalera atera genituen eta Irungo alde zaharretik haiekin dantzan ibili ginen. Joseba Sarriegi eta Bidasoa Atletiko Taldea izan ziren omenduak eta esango nuke oso ondo pasatu zutela. Guretzat sekulakoa izan zen hainbeste denboraren ostean hain giro ona sortu zuen ekintza bat antolatu ahal izatea.

Erraldoiak dira Irungo Atsegiñaren erakargarri nagusietako bat?
Bai. Gure erraldoiek ere 100 urte baino gehiago dituzte eta oso ondare polita dira. Orain dela urte batzuk oso esfortzu handia egin genuen denen artean, hiritarrek ere proiektuan parte hartzeko aukera izan baitzuten, erraldoiak zaharberritzeko. Oso pozik gaude emaitzarekin eta uste dugu ahal bezainbeste erakutsi behar ditugula. Horregatik, aurreratu dezakegu aurten Irungo jaietan gure erraldoiek irteera asko egingo dituztela.

Mendeurrena ospatzeko ekintza asko egingo dituzue?
Bai, noski. Ekainaren 25ean ekitaldi berezi bat egingo dugu, izan ere, egun horretan aurtengo Irungo Erraldoien saria emango dugu. Oraindik ez dugu esango nori emango diogun, baina egun berezia izango da.

Erraza da data berezi honetan elkartearen lehendakaritza kudeatzea?
Azkenean lana suposatzen du eta erantzukizun pila. Era berean, polita da, oso polita da, baina gauzak ondo egin behar dira. Egun elkartearen egoera ekonomikoa ez dago ospakizun handietarako eta, agian, beste momentu batean beste era batera ospatuko genuen.

Uste duzu sorrerako elkartearen eta egungo elkartearen artean alde handia dagoela?
Bai, argi dago gauzak asko aldatu direla. Elkartea toki desberdin batean hasi zen, Irungo Kale Nagusian hasi zen eta honaino iritsi gara. Denbora horretan guztian jende asko pasatu da elkartetik. Esango nuke gaur egun elkartea aberatsagoa dela, transbertsalagoa, mota guztietako jendea sartu da eta poz-pozik gaude.

Adin eta gustu desberdinetako jendearentzat bilgunea da elkartea?
Bai, egun elkartean jatorri eta ezaugarri desberdineko pertsonak dauzkagu. Gainera, emakumeak ere elkartera sartu dira.

Nola irudikatzen duzu Irungo Atseginña elkartearen etorkizuna?
Zer nahiko nukeen? Elkartearen jasangarritasunarekin amestu nahiko nuke. Ez da ahaztu behar elkartea enpresa txiki bat bezalakoa dela eta denok modu boluntarioan lan egiten dugula bertan. Gure denbora librea erabiltzen dugu elkartearen kudeaketaz arduratzeko. Ez dago esan beharrik zailtasunak asko direla eta askotan gauzak egiteko laguntza gehiago beharko genukeela. Beraz, alde batetik kudeaketa sendotu beharko litzateke. Nola ez, jarraipena bermatzeko ere prestatu behar da elkartea. Horretarako Irunen laguntza beharko dugu, Irungo pertsonen laguntza.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Dunboa auzoko liburutegiak José Mensurori eskainitako espazio berria dauka

Dunboa auzoko liburutegiak José Mensuroren, Mensuren, izena daraman espazioa berri bat izango du aurrerantzean. Liburutegira sartu eta ezkerreko apalegiaren bi aldeetan Mensuk dohaintzan emandako liburuak biltzen ditu gune horrek. Bilduma zabala eta askotarikoa da, artistaren liburu propioez gain, bere bizitza osoan zehar bildutako liburuak biltzen ditu, bilduma osoak barne.

Artea, pintura, Bidasoa eskualdea, argazkilaritza, eskultura eta teknika artistikoei buruzko liburuak aurkitu daitezke, besteak beste. Mensu Gunea izena ipini diote Dunboa auzoko liburutegiko eskaintza osatzen duen espazio berriari. Kike Gorrotxategi liburutegiko arduradunak adierazi duenez, "auzoko liburutegiarentzat sekulako oparia izan da, izan ere, Mensu oso pertsona ezaguna da eta dohaintzaren kopurua guztiz ezohikoa izan da gurea bezalako liburutegi batentzat".

Espazio berriaren inaugurazioa maiatzaren 13an egin zen eta ordutik liburutegian eskuragarri daude aipatutako liburu guztiak. Juanma Gamero Dunboako bizilagunen elkarteko lehendakariak ireki zuen inaugurazio ekitaldia. Lehendakariak aurkezpenean azaldu zuenez, Dunboako bizilagunen elkarteak ekintza ugari burutzen ditu, horien artean, auzoko liburutegiaren kudeaketa. Juanma Gamerok azpimarratu duenez, "egun liburutegiak maileguan emateko katalogatutako 8.600 liburu inguru dauzka". Are gehiago, lehendakariak azaldu du, guztira, liburutegiko apalategietakoak eta biltegikoak batuta, 11.000 liburu izan ditzaketela.

Joan den urteko Gabonetan José Mensuro Dunboako liburutegiko arduradunekin harremanetan jarri zen bere bilduma bibliografikoa liburutegiari dohaintzan eman nahi ziola jakinarazteko. Liburutegiko arduradunek harrituta bezain alai jaso zuten oparia eta bildumarentzat liburutegi barruan espazio berezi bat sortzea erabaki zuten. Liburutegiko arduradunaren hitzetan, "ez da ahaztu behar Mensu oso pertsona ezaguna dela bai hemen bai eskualdetik kanpo".

Mensu Gune izeneko espazioaren inaugurazioan zehar José Mensuro artistak sortutako "Valores eternos" film laburra ikusi zen. Mensuk 1966an Hondarribian antolatutako Gipuzkoako Lore Jokoetako lehenengo saria irabazi zuen film laburrean entzuten diren hitzak idazteagatik. Izan ere, idatzi horren bidez Mensu Irunen etorkizuna imajinatzen saiatu zen. Aurkezpenaren egunean onartu zuenez, idatzitako hitz batzuekin asmatu egin zuen, baina besteak, ordea, egungo errealitatetik nahiko urrun gelditu zitzaizkion. Emankizunaren amaieran artistak, liburutegiko arduradunez gain, bere irakasleentzako esker oneko hitzak izan zituen. Mensuren hitzetan, "inoiz egin didaten oparirik handiena irakurtzen eta idazten irakastea izan da", izan ere, ezagutza horri esker bere ekarpen artistikoa zabaltzeko aukera izan du Mensuk.

Film laburraren ostean, Mensu artistaren balioaniztasuna erakutsiz, "Bidasoako paisaiak" bideoa proiektatu zen, non artistak eskualdeko paisaiekin margotutako margolanak erakusten diren. Irunen jaio ez bazen ere, Mensuk hiriarekiko lotura estua duela onartu zuen bere gunearen aurkezpenean. Horregatik uste du Dunboako liburutegia espazio egokia izan daitekeela bere liburu bilduma gordetzeko. "Urte hauetan guztietan zehar irundarrek gauza asko partekatu dituzte nirekin eta orain nik nire altxorrak haiekin partekatu nahi ditut", adierazi du Mensuk.

> **"Urte hauetan guztietan zehar irundarrek gauza asko partekatu dituzte nirekin eta orain nik nire altxorrak haiekin partekatu nahi ditut"**
>
> José Mensuro, Mensu artista

Ekitaldia amaitu aurretik, inaugurazioetan ohikoa den moduan, Mensuk Dunboako liburutegiko espazio berria ofizialki zabaltzeko zinta mozteko ohorea izan zuen. Guraizeekin zinta moztu eta ekitaldi guztia gertutik jarraitu zuen emazteari oparitu zion xingola. Agurtu aurretik, ekitaldira bertaratutako guztiek Mensuren liburu bat eta ilustrazio bat eraman zuten etxera opari gisa.

Liburuak baino askoz gehiago

Liburuak mailegatzeaz gain, Dunboako liburutegiak beste hainbat helbururekin ere egiten du lan. Izan ere, liburutegiak hainbatetan utzi die lekua idazle bidasotarrei beren lanak aurkezteko, hau da, auzoan kultura sustatzeko espazio zehatz bat sortuz. Mensu artistari eskainitako espazio berriaz gain, Dunboako liburutegiak baditu izen propioa duten beste espazio berezi batzuk ere. Liburutegiaren erdigunean, adibidez, Bidasoa eskualdeko idazleen sorkuntzak biltzen dituen apalategia dago, irakurleentzat "etxeko" idazleen lanak topatzea errazagoa izan dadin.

Azken 6 urteetatik Kike Gorrotxategi eta Gemma Nanclares senar-emazteak arduratzen dira Dunboa auzoko liburutegiaren kudeaketaz. Kike Gorrotxategi liburutegiko arduradunak azaldu duenez, liburutegiaren kudeaketaz gain, liburutegiko funts bibliografikoa ezagutarazteko beharraz ohartu ziren. Horretarako, Dunboako liburutegiaren bloga sortzeaz gain, Facebook sare sozialean partekatzen dira liburutegiarekin lotura duten albisteak eta ohar garrantzitsuak. Era berean, Kike Gorrotxategi arduradunak azaldu du hilero liburu berriak erosten direla, ahal den heinean erabiltzaileen gustu eta eskariak errespetatuz. Gainera, Dunboako liburutegiak irakurleen dohaintzak ere jasotzen ditu.

Liburutegiko arduradunak gogoratu duenez, liburutegiko zerbitzuak erabili ahal izateko ez da beharrezkoa Dunboako bizilaguna izatea. Beraz, edozeinek eskuratu eta kontsultatu ditzake bai Mensu Guneko liburuak bai liburutegiaren bilduma osatzen duten gainontzeko aleak.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94

HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak
ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12

TXINTXO
Hurbildu zaitez gure pintxoak probatzera
943 10 33 56
Dario de Regoyos Kalea, Irun

Dunboa ikas komunitateak auzoko dendak euskararen erabileraren eredu bihurtu nahi ditu

Dunboa ikas komunitateak auzoko saltokiak euskararen erabileraren eredu izateko proiektua abiatu du. "Dunboan, eskolan eta auzoan, euskara beti ahoan" leloa jarri diote egitasmoari. Gauzak horrela, ikasleak lanpetuta ibili dira auzoko dendetako txartelak eta kartelak itzultzen. Egitasmoak ikasleak, irakasleak eta dendariak elkartu ditu Dunboa auzoa euskararen erabileran eredugarri izan dadin.

Proiektuaren leloak argi eta garbi uzten du helburua zein den: euskararen erabilera sustatzea. Iñaki Cia Dunboa ikastetxeko zuzendariak azaldu duenez, eskolak orain dela 14 urte eman zuen ikas komunitate bihurtzeko pausua. Zuzendariak azaldu duenez, "ikastetxea auzoari irekita dago, kanpotik datozen proposamenetara irekita gaude, baina guk ere auzoari zerbait eman behar diogu". Hartu-emaneko lotura hori abiapuntutzat hartuta, Dunboako ikas komunitateak auzoarentzat zein ikastetxearentzat aberasgarria izan daitekeen proiektua topatu zuen bidean, hau da, txartelen itzulpena.

Iñaki Ciak adierazi du "guk eskolan batzordeen bidez funtzionatzen dugu eta, beste batzuen artean, Euskara Batzordea daukagu". Euskara Batzorde horretan 5. mailako ikasleek gelan egindako itzulpen ariketa aztertu zen eta ekarpena auzora zabaltzeko modua bilatu zen. Zabalpen horretan eskolako ikasle guztiek beren ekarpena egin dute, ikasle guzti-guztiek parte hartu baitute proiektuan. "Guretzako eskolan txartelak euskaratzea bezalako proiektuen garapena oso interesgarria da", gaineratu du eskolako zuzendariak.

Beraz, irakasleen eta dendarien laguntza izan dute, baina ikasleak izan dira proiektua aurrera atera dutenak. Irakasleek, auzoko dendetan barrena egitasmoa aurkeztu ostean, itzuli beharreko produktuen zerrenda lortu zuten eta ikastetxeko maila guztien artean banatu zuten, ikasle bakoitzak bere ekarpena egin zezan. Ikasleek zerrenda jaso zuten eta itzulpen lanetan murgildu ziren.

Julen Ochoa itzultzaile lanetan ibili den ikasleetako bat da. 5. mailako ikasleak onartu duenez, "proiektuan parte hartu aurretik zerrendako hitz batzuk euskarara nola itzultzen ziren bagenekien, beste batzuk ez ordea". Dunboako ikasleak azaldu du hitz ezezagunen itzulpenak bilatzeko hiztegiak erabili dituztela. "Zalantzak argitzeko ordenagailuan Elhuyar edo Itzultzaile Neuronala izeneko hiztegiak erabili ditugu". Hortaz, hitz berriak deskubritzeaz gain, ikasleek hiztegiak erabiltzen ikasi dute, bai eta hitzen itzulpen zuzena aurkitzeko jarraibideak ere.

Erabilera ereduen hutsunea

Proiektuaren alde praktikoak garrantzi handia izan du hasieratik. Patxi Ribera Dunboako Euskara Batzordeko kideak azaldu duenez, "ohartu gara ikasleek eskolatik atera eta auzoko dendetan ez dutela euskararen erabileraren adibiderik". Dunboako irakasleak azaldu du ikastetxean ikasleek euskaraz ikas dezaten ikasleek beraiek, irakasleek eta, batzuetan gurasoek ere, ahalegin berezia egin dutela. Leire Ormazabal eskolako normalizazio arduradunak gehitu duenez, "kanpora ateratzerakoan, ordea, ez dute barnean egindako lanaren islarik ikusten". Julen Ochoa ikasleak irakasleen usteak baieztatu ditu, "kalean ez ditugu denden izenak, kartelak edo prezioen txartelak euskaraz idatzita ikusten". Horrela, proiektu honen sorrera bururatu zitzaien, alde batetik, auzoari ekarpena egiteko eta bestetik, haurrek eskolatik kanpo euskara erabil dezatela errazteko. Patxi Riberak gaineratu duenez, "errespetu falta bat da dendetara joan eta euskarazko informaziorik ez topatzea, bai hizkuntzarekiko bai gurekiko".

Egitasmoa gauzatu ahal izateko denden inplikazioa ezinbestekoa izan da. Auzoko dendetan pozik jaso dute Dunboako ikas komunitatearen proposamena. Ekintzara batu den lehenengo saltokia Dumboa fruta denda izan da. Ikastetxean lanean hasteko aukera izan zezaten, fruta dendako produktu guzti-guztien izenak biltzen zituen zerrenda bat osatu zuten ikasleen esku uzteko. Patxi Riberaren hitzetan, "saltokiek beren produktuen zerrenda eman digute eta batzuetan beraiek ere izenak itzultzeko saiakera egin dute".

Emaitzak kalean

"Dunboan, eskolan eta auzoan, euskara beti ahoan" egitasmoaren lehen emaitzak Dumboa fruta dendan ikusi daitezke dagoeneko. Maiatzaren 25ean Dunboa eskolako maila bakoitzeko ikasle ordezkari bana hartu, taldetxoa osatu eta txarteltxoak auzoko fruta dendara eraman zituzten. Julen Ochoak azaldu duenez, "Txartel bakoitzean produktuaren euskarazko izena eta argazkia jarri dugu, belkroa ipini diogu eta dendariek prezioa ipintzeko tartea utzi dugu". Eskola guztiak egindako lanaren emaitza izan da eta kutxa helmugara eramatea lortu dugu.

Fruta dendan Ainhoa Urtizberea dendariak egin zien harrera. Kutxaren tapa ireki eta haurrek eskolan kontu handiz egindako lanaren emaitzak ikusi ahal izan zituen. "Irakasleek azaldu zigutenean oso proiektu interesgarria iruditu zitzaigun, helburua haurren, gurasoen eta dendarien artean euskara sustatzea delako", adierazi du Dumboa fruta dendako dendariak. Gainera, denda txiki gisa auzoko ikastetxearekin harremana izatea oso polita dela adierazi du. "Proiektuak dendariei ere hitz berriak ikasteko eta euskara erabiltzeko aitzakia ematen digu", gaineratu du Ainhoa Urtizbereak. Haurrez inguraturik, dendariak lehen txarteltxoak ipini zituen dendan, ikasle zein bezeroek lanaren emaitza ikusteko aukera izan zezaten.

Jarraipena ezinbestekoa

Dunboa auzoko lehen denda jada euskaldundu badute ere, lana ez da amaitu. Pixkanaka ikastetxeko haurrak auzoko beste saltokien produktuen izenak itzultzen joango dira. Hurrengo helburua zein den erabaki dute dagoeneko: Todo Todo supermerkatuko arrandegiaren itzulpena. Patxi Riberaren hitzetan, "pixkanaka auzoa euskaldunduko urratsak egin nahi ditugu". Hala ere, irakasleak azaldu du gustatuko litzaiekeela hiriko beste eskolek ere proiektuari jarraipena ematea eta beren auzoetan gauza bera egitea. "Horrela apurka-apurka hiri osoa euskaldunduko dugu".

Euskara suspertzeko lehen aleak erein dituzte horrela Dunboako ikasleek. Keinu txikien bidez, hizkuntzak saleroskeita harremanetan bidea aurkituko duelakoan. Orain, denborak eta bakoitzaren nahiak esango du etorkizuna nolakoa izango den.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK
Félix Manso
IBARLA
Meaka auzoa, 9 – 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964
FELIX MANSO IBARLA JATETXEA
info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

Belaskoenea ikastetxean berriro eragin diete bizikleten pedalei amaitzear den ikasturtean

Eskola orduetan bizikleta erabiltzen ikasteko ideia ez da berria Belaskoenea ikastetxearentzat. Izan ere, 2021-2022 ikasturtean zehar abiatu zuten egitasmoa izan zen eta, aurreko urtean izandako arrakasta ikusita, aurten bizikleten proiektua zabaltzearen eta garatzearen aldeko apustua egin dute. Belaskoenea auzoko ikastetxeko ikasle eta irakasleek bizikleta gainean eta inguruan ikasitakoak kontatu dituzte.

Guztira, 6 aste bideratu dituzte aurten Belaskoenea ikastetxean bizikletaren lanketara. Aurreko urteko esperientzia lagun, ordea, proiektuari buelta bat eman diote eta ekintzaren garapenean hainbat irizpide aldatu dituzte. Aldaketa nabarmenen artean aipatzekoa da aurten bizikletarekin lotutako nozioak gorputz hezkuntzako ikasgaiaren barnean landu direla. Nahia Iparraguirre Belaskoenea eskolako soinketako irakasleetako bat da. Gorputz hezkuntzako maisuak azaldu duenez, proiektua iaz hasi zuten eskolan Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleekin. Nahia Iparraguirrek adierazi duenez, "gorputz hezkuntzako irakasle bezala, proiektua gure klasearen parte izan zitekeela ikusi genuen eta interesgarria iruditu zitzaigun gure programazioaren barnean txertatzea".

Horrela, eskola ordu arruntetan landu beharrean, soinketa orduetan landu da aurten. "Gainera, aurten eskolan soinketako irakasleak bi garela aprobetxatuz, lana asko erraztu zaigu". Proba pilotu bezala Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin egin dute aurtengo lanketa. Gorputz hezkuntzako irakasleak azaldu duenez, "egitasmo honen helburu nagusia da txango bat egiten dugunean ikasle guztiak bizikletaz ibiltzeko gai izatea". Izan ere, Nahia Iparraguirrek esplikatu duenez, noiz edo noiz gertatu izan zaie irteera batera joatea eta ikasleren bat ekintzatik kanpo gelditzea bizikletan ibiltzen ez zekielako. Beraz, eskolan egindako lanketaren bidez egoera hori berriro errepikatzea saihestu nahi dute.

2021-2022 ikasturtean aurreko urtean hasitako proiektua garatzeaz gain, datozen urteetan Belaskoenea ikastetxean bizikleten egitasmoa nola bideratu nahi den pentsatzen hasi dira. Oraingoan 6. mailako ikasleak aukeratu dituzte, Nahia Iparraguirreren hitzetan "ikastetxeko handienak izanda, trebetasun gehiago dituzte eta errazagoa da haiekin lan egitea". Dena den, helburua da pixkanaka proiektua ikastetxeko beste mailetara zabaltzea, bizikletaren lanketa osoagoa izan dadin.

Ikasleez gain, egitasmoak oso harrera ona izan du ikasleen zein haurren guraso edo tutoreen artean. Soinketako irakasleek ikasleei gorputz hezkuntzako orduetan zer landu nahi zuten galdetu zietenean aho batez erantzun zuten bizikletan ibiltzen ikasi nahi zutela. Guraso eta tutoreek ere ekintza jakinarazteko zirkularra jaso zutenean oso ideia interesgarria iruditzen zitzaiela adierazi zuten. Nahia Iparraguirrek azaldu duenez, "egitasmoa bereziki erakargarria da etxean haurrei bizikleta erosteko edo haiei bizikletan ibiltzen irakasteko baliabiderik ez duten horientzat".

Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuz

Gorputz hezkuntzako orduak bi zatitan banatu dira bizikletarekin lotutako edukiak lantzeko. Batetik, lehenengo saioetan bizikletaren inguruko lehen nozioak azaldu zizkieten ikasleei. Ostean, bizikleta mota ezberdinen arteko desberdintasunak aztertu zituzten ikasleek, esaterako, lasterketako bizikletak gainerako bizikleta motekin alderatuz. Era berean, bizikletak beraien neurrira egokitzen ikasi dute. Irakasleek espero dute ikasturtearen amaierarako ikasleek bizikleten gurpilen zulaketak konpontzen ikastea eta bizikletaren mantentze minimorako ezagutzak eskuratzea. Esparru teorikoa lantzeaz gain, bizikleta gainean trebatzeko aukera ere izan dute ikasleek, eta bizikletan ibiltzen ez zekitenek bi gurpilen gainean lehen pedalkadak emateko aukera izan dute.

Samuel Yordanof eta Nerea Diaz ditugu beren ikaskideekin batera ikasturte honetan zehar bizikletaren inguruko ezagutzak sakondu dituzten ikasleetako batzuk. Nerea Diazentzat bizikletara igo den lehen aldia izan da eta ikasleak onartu duenez, "apur bat konplexua izan da, hasieran batez ere. Hala ere, irakasleen babes etengabea funtsezkoa izan da eta saio gutxitan hobekuntzak nabariak izan dira. Nahia Iparraguirrek azaldu du 6. mailako klaseko Nerea Diazez gain, beste ikasle batek ere bazituela bizikleta gainean moldatzeko zailtasunak. "Beste klase batzuetan ordea, gehiago dira bizikletan ibiltzen ez dakiten ikasleak", azaldu du gorputz hezkuntzako irakasleak.

Samuel Yordanof ikasleak adierazi du eskolan gaia landu aurretik berak bazekiela bizikletan ibiltzen. Ikaslearen hitzetan "bizikletari buruz gehiago ikasteko erabili ditugun orduak oso dibertigarriak izan dira". Proiektuaren finkapenaz galdetuta, datozen ikasturteetan Belaskoenea ikastetxean proiektua errepikatzea eskatu du Samuelek, etorkizuneko ikasleek asko ikasteko aukera izango dutelakoan. Bizikleta gainean trebeagoak diren ikasle horiekin zirkuituak prestatu dituzte eskolako patioan, trebetasun handiagoa lortzeko.

Proiektu balioaniztuna

Bizikletarekin loturiko edukiak lantzeaz gain, Nahia Iparraguirre irakasleak aurreratu du bizikleta beste hainbat eduki lantzeko baliagarria izan daitekeela. Bestalde, hurrengo ikasturteetan bestelako edukiak ere lantzea aurreikusten da. Adibidez, uste da bide seinaleak lantzeko proiektu aproposa izan daitekeela. Era berean, irakasleek adierazi dutenez ikasleen arteko lankidetza bultzatzeko oso egitasmo lagungarria izan da. Azkenik, ikasleen motibazioa areagotzeko pizgarria izan dira bizikletak.

Proiektuak bigarren urtez jarraian izandako arrakasta ikusita, Nahia Iparraguirre irakasleak zalantzarik gabe baieztatu du Belaskoenea ikastetxeko ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzeko lanean jarraituko dutela.

Landetxako talde erregionalak azken unean galdu du mailaz igotzeko aukera

Landetxa elkarteko maila erregionaleko taldeak mailaz igotzeko finala jokatu zuen Bergarako taldearen aurka. Partidua 1-0 galduta, Landetxako taldeari mailaz igotzeko aukerak ihes egin dio. Dena den, taldeak oso denboraldi txukuna egin du garaipen mordoa bilduz. Iñigo Arambarri eta Xabi Peña jokalariak denboraldiaren balorazioa egin dute.

Mailaz igotzea lortu ez arren, taldearentzat garrantzitsua izan da finaleko partidura iristea?
Xabi: Bai. Azkenean denboraldi luzea izan da. Hasieran taldea osatzeko auzoko lagun asko elkartu ziren. Hasiera batean taldea ona izango zela zirudien. Denboraldiak erakutsi digu sasoian eskuratu genezakeen lorpen garrantzitsuenetik oso gertu ibili garela. Hala ere, jendeak esan digu denboraldian zehar egindakoarekin pozik geratu dela. Badakigu lehen urtean horrelako gauzak lortzea zaila izan daitekeela. Gutxienez, jendeak adierazi digu datorren urtean berriro saiatzeko asmoa duela.

Finaleraino iristea denboraldi osoan zehar egindako lan onaren erakuslea da, ezta?
Iñigo: Bai, denboraldi guztian 4 partidu bakarrik galdu ditugu eta pena handia eman digu azken bi hilabeteetan 3 partidu galtzeak. Dena den, oso pozik gaude egindako bideaz eta guztiz konforme gaude gure lanarekin. Garaipenetik partidu bakar batera geratu garen arren, oso pozik egon gara, taldea oso ona izan da eta datorren urtean berriro saiatuko gara, guretzat oso urte polita izan baita.

Zuen ustez zer falta izan zaizue maila igoera lortzeko?
Xabi: Bi edo hiru gol gehiago sartzea, besterik ez. Urte osoan zehar lan gogorra egin dugu, asko entrenatu dugu eta partiduetara jende dezente joatea lortu dugu. Argi dago beste baten kontra jokatzen duzunean batek galdu eta besteak irabaziko duela. Oraingo honetan azkeneko hiru finaletan bi huts egite handi izan ditugu eta gauzak horrela gertatu dira. Agian gauzak hobeto ateratzeko lasaitasun apur bat falta izan zaigu eta zorte apur bat ere.

Hasieratik mailaz igotzeko helburua ezarri zenioten zeuen buruari?
Iñigo: Bai. Izan ere, hasieratik bagenekien taldea oso ona zela eta argi izan genuen igoera faseraino iristea lortu behar genuela. Lehenengo helburua lortu dugu, gainera derbiak irabazita zelaira giro ona ekartzea lortu genuen. Denboraldiko bigarren zati honetan, berriz, sailkapenean ahalik eta gorenera iristea zen helburua. Pena izan da sailkapena bideratua eduki arren, azkeneko momentuan bidean gelditzea. Helburua hori baitzen, hor inguruan ibiltzea eta ahal bezain beste borrokatzea.

Xabi: Behin sailkapena lortuta, lasai-lasai, presiorik gabe jokatzen hasi ginen eta fase honetan ere partiduak irabazten genituela ikusi genuen. Goian buru belarri ibili gara eta, egia esan, saiatu egin gara. Jendeak dena eman du eta horrekin geratzen gara. Taldean lortutako giroa ere azpimarragarria iruditzen zaigu. Azkenean, taldeko jokalari askok hamabi urte zituztenetik elkarrekin jokatu dute, baina beste asko auzoko lagunak dira edo koadrilakoak. Horrela familia txiki moduko zerbait lortu dugu eta hori emaitzetan ere ikusten da, giro onak emaitzak baititu partiduetan.

Giro onak, beraz, taldean lortutako emaitzetan eragin du?
Xabi: Bai, dudarik gabe. Partiduak amaitutakoan ere afariak antolatu ohi ditugu eta elkarrekin gora eta behera ibili ohi gara. Pandemia dela eta hasieran tabernak goiz ixten zituztenean, baten etxetik bestearen etxera ibiltzen ginen. Beraz, giro on hori gero partiduetan islatzen da. Partiduan lagunekin batera lehiatu behar zarenean eta zure alboan korrika den-dena ematen ari direla ikusten duzunean ba zuri ere daukazun guztia ematea ateratzen zaizu.

Emaitzak eta taldean sortutako giroak zaleak zelaira erakarri ditu?
Xabi: Bai, denboraldiak aurrera egin ahala nabaritu dugu jendeak auzoan galdetzen zigula hurrengo partidua noiz jokatu behar genuen eta non eta zer ordutan zen. Auzoko haurrak ere gure partiduak ikustera etorri izan dira. Atezainaren atzean, berriz, "Kate Hools" deituak jarri ohi ziren, hau da, klubeko hooliganak eta bengalak eta bestelakoak ekartzen dituzte partiduak animatzeko.

Jarraitzaileen babesak indarrik ematen dizue?
Iñigo: Bai, azkenean gehigarri bat da. Ni gogoratzen naiz orain dela hiru urte hemen entrenatzen hasi ginenean, hasiera batean oso zaila zen jendea etortzea lortzea. Izan ere, hasiera horretan taldeak ez zuen lortu auzoko jendea erakartzea. Aurten, ordea, oso partidu politak izan ditugu, zelaia toperaino bete dugu, bengalekin, jendea elkarrekin abesten, umeak klubeko koloreekin eta hori guztia oso polita izan da guretzako.

Datorren denboraldirako zein izango da taldearen helburua?
Xabi: Taldea maila erregionalean mantenduko dugu eta jada jakinda noraino iritsi gaitezkeen, beste era batera lan egingo dugu. Esperientziak ere asko laguntzen dizu. Beraz, datorren urterako garrantzitsua izango da blokea mantentzean, jendearengan ilusio hori mantentzea, helburua lortu arte saiatzen jarraitzeko. Soberan dakigu helburua lortzeko kapazak garela eta hurrengo urtean zalantzarik gabe horretan saiatuko gara.

Iñigo: Familia hau mantentzen bada, uste dut maila igoeratik oso hurbil egongo garela.

Xabi: Hauek gazteak dira oraindik, gauza asko emateko dituzte oraindik.

Iñigo: Xabierren ustearen arabera datorren urtean bai edo bai igo beharko dugu.

Palekin frontoiak beteta gero eta nabariagoa da emakumeen presentzia kirolean

Maiatzaren erdialdean Emeki elkarteak Emakumeen Pala Txapelketaren 7. edizioari eman zion hasiera Soroetan frontoian. Maiatzean kanporaketak jokatu dituzte eta ekainaren 4an finala jokatuko dute Jostaldi pilotalekuan. Palara jokatzen duen emakume talde hau nola sortu zen azaldu dute Xuxuna Otxoteko eta Izaskun Amunarriz irundarrek.

Txapelketa pandemiarengatik eten ostean, berriro martxan zaudete. Garrantzitsua da berriro martxan egotea?
Izaskun: Bai, berez jada 90.eko hamarkadan hasi zen Emeki txapelketa hau antolatzen. Txapelketa oso jendetsuak izan ohi ziren eta jende asko etortzen zen kanpotik. Urte batzuez txapelketa eten ostean, 2019an berriro berreskuratu zen. Orduan hasi ginen berriro, baina pandemiarengatik berriro eten behar izan genuen. Joan den urtean berriro hasi ginen txapelketa jolasten.

Orain arte kanporaketak jokatu dituzu. Nola joan da txapelketa orain arte?
Xuxuna: Egia da aurtengo txapelketa gure arteko norgehiagoka bat izaten ari dela. Iaz kanpotik bikote gehiago etorri ziren. Gu ez gara inondik inora ere jokalari profesionalak, entrenatzeko elkartzen gara bakarrik. Aurten maila ona dago txapelketan. Jende berria sartu da, aurretik trinketean ibilitakoak, eta sumatzen da maila badela.

Finala Jostaldi pilotalekuan jokatzea berezia izango da zuentzat?
Izaskun: Bai, iruditzen zitzaigun garrantzitsua zela txapelketa jostaldi bezalako pilotaleku batera eramatea. Nahiz eta normalean entrenamenduak hemen egin, astean egun bat bertan entrenatu ahal izatea eskatu genuen. Astearteetan hara joaten gara eta gainontzeko egunetan hemen entrenatzen dugu, Soroetan. Txapelketako egun gehienak hemen jolastu arren, finala Jostaldin egingo da, beraz, primeran.

Xuxuna: Jokatzerakoan nabaritzen da Jostaldiko frontoia handiagoa dela eta bertan jokatzera egokitu gara. Bietan ondo moldatzen gara.

Txapelketaren zazpigarren edizioa antolatu ahal izatea pozgarria da?
Izaskun: Hemendik aurrera edizio gehiago antolatu ahal izatea eta jende gehiago etortzea espero dugu. Giroa sekulakoa da eta era berean kirola egiteko balio digu. Horrela antolatzen ditugu gisa honetako ekintzak, emakumeak frontoiak okupatzera animatzeko, emakume gutxi ibiltzen baita hemen.

Nolatan sortu duzue astero entrenatzeko elkartzen zareten taldetxo hau?
Izaskun: 2019ko txapelketaren ostean frontoian gehiago ibiltzeko beharra ikusi zen, maila ez zelako oso ona izan. Horregatik, lagun talde batek astero elkartzea erabaki genuen, elkarrekin entrenatzeko. Horrela, pixkanaka hobetzen joan gara eta txapelketak iristen zirenean gogo handiarekin hartzen genuen.

Xuxuna: Asteartetan Jostaldin elkartzen gara, eta asteazkenetan eta ostegunetan Soroetan elkartzen gara 18:00etatik 21:00etara. Emakume dezente elkartzen gara, batzuetan 10 izaten gara, besteetan 12 edo 14 eta gure artean partiduak eta entrenamenduak egiten ditugu.

Izaskun: Gainera, adin guztietako emakumeak elkartzen gara. Gazteenak 12 urte ditu eta bada baten bat 63 urte dituena. Beraz, maila desberdineko jendea izateaz gain, adin desberdineko jendea ere badugu.

Erraza izan da emakumeak palan jolastera animatzea?
Xuxuna: Egia esan, ez dakit zer erantzun. Egia da orain dela bi urtetik jende ia berbera elkartzen garela, hala ere jende berria etorri da. Ez dakit emakume guztiengana iritsi ote den hemen sortutako taldearen berri. Jendea behintzat badugu, batzuetan 16 izatera ere iristen gara eta niretzako hori entrenamendu baterako asko da. Dena den, oraindik falta da.

Izaskun: Nik uste jendeari hurbiltzea kostatzen zaiola. Egia da behin hurbilduta, jendeari gustatzen zaiola. Hortik aurrera entrenamenduetara etortzen jarraitzen dute.

Talde hau emakumeek frontoiak okupatzeko modua da?
Xuxuna: Frontoiak okupatu nahi ditugu, baina ez da erraza jendea hurbiltzea. Beraz, aukera hau aprobetxatuz jendea animatu nahi dugu guregana etortzera eta pala probatzera. Berriro errepikatzen dut, sortzen den giroa eta elkarren arteko harremana oso ona da. Txapelketak ondo daude eta txapelketaren amaieran egin ohi dugun bazkaria are hobeto, beraz, merezi du.

Zuen antzeko beste emakumeen pala taldeekin harremanetan jarri zarete?
Izaskun: Bai, gure taldeko pertsona batzuk mugitzen ari dira eta beste herrietan sortutako pala taldeekin harremanetan jartzen ari dira. Aurten ez, baina datorren urtean seguruenik beste herrietako partiduetan jokatzen hasiko gara.

Xuxuna: Gure antzera dabilen jendearekin erlazionatzea komeni zaigu. Izan ere, gu ez gara profesionalak, beraz, jendeak ez du beldurrik izan behar guregana etorri eta pilotari ez emateagatik edo txarra izateagatik. Txapelketek beti saltsa sortzen dute eta baita irabazteko grina.

Izaskun: Helburua da ondo pasatzea eta gorputza apur bat mugitzea.

Epe luzera begira, zein da taldearen helburua?
Izaskun: Herrietan dauden frontoiak okupatu nahi ditugu kirolean emakumeen presentzia gero eta gehiago nabaritu dadin. Orain, behin taldea martxan jarrita, taldea mantentzeko garaia da. Datozen guztiak ongi etorriak izango dira. Ahalik eta talde handiena osatu nahi dugu.

Xuxuna: Garrantzitsua iruditzen zaigu beste herrietako taldeekin sarea osatzea. Nik taldeari etorkizuna ikusten diot, harrobi itzela dugu eta.

Euroeskualdeak mugaz gaindiko mugikortasunarekin eta enpleguarekin loturiko proiektuak aurkeztu ditu Ficoban

Ficoba mugaz gaindiko mugikortasuna eta enpleguarekin loturiko proiektuen aurkezpen lekua izan da. Batetik, Forma NAEN proiektuaren bidez mugaz gaindiko enplegu aukerak zabaldu eta ziurtagiriak bateratzeko egitasmoa aurkeztu zen. Bestetik, TRANSFERMUGA-RREKIN proiektua baliatuz mugaz gaindiko mugikortasuna sustatuko dela azaldu zen.

Forma NAEN

Euroeskualdearen proiektuekin loturiko lehen ekintza Forma NAEN proiektuaren balorazioa izan zen. Izan ere, egitasmoan parte hartu zuten eragileak Ficoban elkartu ziren. Bileran aurrera eraman diren ekintzen emaitzak aurkezteaz gain, ziurtagiriak lortzea ahalbidetuko duen mugikortasun iraunkorrerako konponbideen berri eman zen.

Zehazki, Forma NAEN proiektuaren xedea izan da 2020-2022 aldian lanbide heziketako eskaintza kualifikatua eta berariazkoa sortzea. Gainera, Forma NAENek integrazio profesionala bilatzen du Euroeskualde mailan, langileen beharra duten sektoreek, esaterako automobilgintzak, erraztasunak izan ditzaten.

Forma NAEN proiektuari esker hainbat ekintza burutu dira. Besteak beste, alboko herrialdeko hizkuntza ikasteko oinarrizko prestakuntza, langileei zuzendutako laguntza administratiboa eta fiskala, langileen, ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen trukeak bultzatu dira eta mugaz gaindiko espazioen sorrera sustatu da.

Forma NAEN egitasmoa aurrera eramateko, lankidetzan dihardute honako eragile hauek: Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdea, Akitania Berriko Merkataritza eta Artisautzaren Eskualde-Ganbara (Akitania Berria-Pirinio Atlantikoak), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua, ZubiGune Fundazioa, Usurbil LHII, Ikaslan Gipuzkoa, TKNIKA eta Akitania Berriko Merkataritza eta Artisautzaren Profesionalen Eskualde-Ganbara. Horretaz gain, honako erakunde hauek ere egin dituzte ekarpenak: Paul Bert, LGT Saint Dominique, Louis de Foix institutua, Plaiaundi, Don Bosco, Elizondo Lanbide Eskola IIP, Donapea LHI, CI Virgen del Camino, ANFA eta EEIK.

Transfermuga-rrekin

Mugazgaindikomugikortasuna Akitania-Berria / Euskadi / Nafarroa Euroeskualdearen ekintzen erdigunean dago. Horregatik, Trasnfermuga proiektuaren bidez sortutako transfermuga.eu informazio atariak mugaz gaindiko bidaiarien esperientzia hobetzea eta aukera berrien bilaketa erraztea du helburu, batez ere, autobus eta tren bidez egin daitezkeen bidaien informazioa bilduz.

Elgarrekin ekimenaren bidez ia 1,2 milioi biztanle biltzen dituen mugaz gaindiko esparruan mugikortasun jasangarriak egituratuko dituen ardatz bat bermatuko da. Horretarako, Hendaian lotura multimodalen polo bat sortu nahi da, Euskal Herri-Aturriko Mugikortasun Sindikatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Sarritan mugaz gaindiko joan-etorriek garraiobidea aldatzera derrigortzen dituzte bidaiariak eta zaila da mugaren alde bakoitzeko azpiegituren eta maiztasunaren kudeaketa egokia egitea. Mugikortasuna errazteko eta arintzeko saiakera horretan, autobus eta trenen arteko intermodalitatea eta autoen eta bizikleten artekoa ere optimizatzeko beharra sortu da.

Horrela, Trasnfermuga-rrekin proiektuari esker transfermuga.eu ataria eguneratu da, webgune intuitiboagoa eta osatuagoa lortzeko. Bestetik, Euroeskualdeko garraioei buruzko datu basea zabaltzearekin batera, ibilbideen kalkulatzailea eguneratu da, % 100 open source den sistema bat ezarriz. Era berean, mugaz gaindiko garraio multimodalak integratuta eskaintzeko ikerketa abiatu da.

Hain zuzen ere, Ficoban maiatzaren 16an egindako ekitaldian Transfermuga-rrekin proiektuko 3., 4. eta 5. ekintzak aurkeztu zituzten lantalde teknikoetako kideek. Jarraian, bi mahai-inguru egin ziren. Lehenengoan trena mugaz gaindiko eremuan egituratzea bermatzeko eman beharreko urratsez eztabaidatu zen. Bigarren mahai-inguruan berriz, bidaiariari informazioa igorri eta txartelen elkarreragintasuna lortzeko mugazgaindiko tresnez hausnartu zen.

Itxiera ekitaldian Akitania-Berria, Euskadi eta Nafarroako lurraldeetako hautetsiek parte hartu zuten: Mathieu Bergé, Mikel Anton eta Izaskun Goñi, hurrenez hurren. Era berean, Euskal Hirigune Elkargoko eta haren mugikortasun sindikatuko ordezkariak ere izan ziren, baita Euskal Trenbide Sareko eta SNCF azpiegitura filialeko ordezkariak ere.

Nahiz eta Euroeskualdeko ekintza nagusiak Ficobako ekitaldian ezagutarazi diren, Hendaiako gune intermodalaren inaugurazio ekitaldia datorren ekainaren 27an izango da. Zinta moztean Akitania-Berriko lehendakaria Alain Roussete-ek eta Euskadiko lehendakaria Iñigo Urkulluk hartuko dute parte, baita gune intermodalaren Elgarrekin egitasmoa kofinantzatu duten tokiko erakundeen ordezkariek ere. Modu horretan, Euskal Hirigune Elkargoko, Pirinio-Atlantikoen departamentuko, Hendaiako Udaletxeko eta Euskal Trenbide Sareko eta SNCFko agintariek parte hartuko dute.

IRUNGO LA SALLE HH 5 URTE

Denbora-pasak

7 hitz: Tortilla irundarraren osagaiak



Arrautz, urdaiazpiko, tipula, piper, onddo, perrexil, baratxuri.

	7				6		5	3
3		8	2	9		7		
5		6			7	4		
7	2			8				9
		1						6
8				2			3	
				4	2			
	3	9		5				
2						3		8

Mugarriak

Egilea: Andoni Zelais Otaño

Doinua: Saltarina da txepetxa eta

1)
Mugarriaren zentzu anitza
lerro geografikora,
administratu politizatu
lekua eta denbora,
asentamentu komunitate
geziak eta aizkora,
gizateria asmakizunez
iritsi zen sutondora,
eta zenbat metafora.

2)
Etxe txikiak etxe multzoak
etxaldeak baserriak,
kobazuloak utzi ondoren
ziran egoitza berriak,
izotz-arotik laborantzara
bidaia harrigarriak,
basapiztiak etxekotzeko
ehizatik erakarriak,
gero datoz mugarriak.

3)
Lan eta bizi moldatzen ziran
famili edo taldeetan,
naturarekin ikasi zuten
jolasten eta hizketan,
lur eremuak mendi basoak
mugak herri auzoetan,
berdin estatu nola nazio
udalerriko sailetan,
ondu zituzten lurretan.

4)
Erreka ibai eta zuhaitzak
muga bihurtu ohi dira,
Larrun puntatik sarri egona
hara honera begira,
Bidasoaren ertz banatan, bi
estatuen lubakira,
nazio txiki bat zatitzeak
darama hondamendira,
kontra-natura hori da.

5)
Mila zazpiehun laurogei eta
hamahiru hamabostera,
Frantzia eta Espainiaren
konbentzioko frentera,
Itsasutikan gazte multzo bat
bertako mugak zaintzera,
Frantziarentzat defenditzea
Euskaldunentzat galera,
ihesi hego aldera.

6)
Mendi gailurra mendi lepoa
itsaso ertza padura,
kontrabandoa gaueko lana
ogi-bidea onura,
bi karlistada, bi mundu gerra
frankismoa diktadura,
gudarientzat pasabideak
egiten ziran modura,
mugalarien kontura.

7)
Harriak mugan sareak mugan
muga oztopoz betea,
etorkinentzat bilakatu da
infernurako atea,
moral bikoitzak harrapatu du
agintari elitea,
uniformedun sasi jakintsu
bere esku egotea,
eskubide patentea.

8)
Boteredunak, kapitalistak
eta multinazionalak,
beraiek jarri beraientzako
non paradisu fiskalak,
hemen besteok bizi ditugu
muga artifizialak,
normala dela sinestarazi
baina ez dira normalak,
dauzkagun muga mentalak.

DUNBOA LH 3. ZIKLOA

Euskarak buruzagi berriak ditu gazteen artean Euslider proiektuari esker

Euskarak lider berriak behar ditu egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko. Horretaz jabetu ziren aspaldi AEK-ko kideak, eta ikastetxeak abiapuntutzat hartuta, hizkuntza ohituretan eragiteko proiektua diseinatu zuten. Proiektu berria izan ez arren, argi geratu da oraindik fruituak ematen dituela. Izan ere, aurten bertan Irungo San Vicente de Pauleko, Eguzkitzako, Hirubideko eta Gazteluzarreko ikasle eta irakasleak inplikatu dira.

Irungo AEK-ko Beñat Altzagak azaldu duenez, orain dela 10 bat urte ikusi zen proiektu hau hasteko beharra. Abiapuntuak izan ziren euskararen normalizazio prozesuari jarraipena ematea eta Euskal Herri euskaldun bat lortzea. Hala, hizkuntza ohitura berrien sorrera bultzatzea lortu nahi zen. "AEK beti egon da kezkatuta euskararen erabilerarekin, gazteen hizkuntza ohiturekin eta euskararen kalitatearengatik", adierazi du Irungo AEK-ko kideak.

Proiektuaren arrakasta bermatzeko ezinbestekoa izan da ariketa gauzatzeko adin talde egokiena aukeratzea. AEK EHUko psikologia sailarekin harremanetan jarri zen eta hizkuntza ohituretan eragiteko adin tarte aproposena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleena zela ikusi zen. Izan ere, psikologian adituek baieztatu zuten orduan hasten dela nortasuna eta hizkuntzekiko begirunea eraikitzen eta errotzen.

Bi ziklo, helburu bakarra

Euslider proiektuak helburu bakarra duen arren, bi fase edo ziklotan garatzen da. Beñat Altzagak azaldu duenez lehen zatian AEK-ko irakasleak dira 3. mailako ikasleen aurrean informazio emaileak. "Saio horietan datu soziolinguistikoak lantzen ditugu, esaterako, hizkuntzaren lanketaren garrantziarekin loturikoak, hizkuntzen ezaugarriak, hizkuntza gutxituak zer diren eta abar". Informazio hori partekatzerakoan, oro har hizkuntza guztiek duten garrantziaz ohartarazi nahi dira ikasleak, ez soilik euskararen garrantziaz. Informazio saioen ostean ikasleek parte hartzea sustatuko duen edozein ekintza antolatu behar dute, beraiek antolatua baina parte hartze irekikoa izango dena. Aurten ikasleek Irungo Korrika Gaztea antolatu dute.

Julen Beltran Eguzkitzako ikaslea da eta hirugarren mailako ikaslea denez, proiektuaren lehen fasean parte hartu du. "Asko gustatu zait proiektu honetan parte hartzea, gauza asko ikasi ditugu eta talde lana oso garrantzitsua izan da", azaldu du ikasleak. Julenen hitzetan oso proiektu dinamikoa izan da eta gainera, uneoro irakasleen laguntza izan dute eskura. Julen Beltranen ustez horrelako proiektuen bidez ikasleek gainontzeko ikasgaiek eragindako lan gainkargatik aldendu eta gauzak lasaiago lantzeko aukera dute. Aurten Irungo Korrika Gaztearen antolaketaz arduratu dira, talde lana ezinbestekoa izan den proiektuan.

Proiektuaren bigarren faseak, berriz, Euslider izenaren zergatia azaltzen du. Maddi Sanzek azaldu duenez, bigarren zati honetan ikasleek modu boluntarioan parte hartzen dute eta beraiek dira Euslider saioak zuzentzeko arduradunak, aurreko urtean ikasitakoaz baliatuz. "Oso polita da hirugarren mailako ikasleak laugarren mailara pasatzen direnean, eskolako nagusiak dira orduan, beraz, besteentzako erreferentzia gisakoak bihurtzen dira", adierazi du Irungo AEK-ko Maddi Sanzek. Beraz, ikasleek beraien pareko erreferentzia bat dute. Beñat Altzagak gehitu du, "horrela sortzen da Eusliderra, hizkuntzen gaineko erreferentzia".

Iraia Zapirain eta Edurne Alzaga Gazteluzar ikastetxeko 4. mailako ikasleak dira. Bi ikasleek baieztatu dute aurreko urtean Euslider proiektuko hartzaile izatetik aurten buruzagi izatera igarotzea aldaketa handia izan dela beraientzat. Edurne Alzagaren iritziz "laugarren mailan egonda eta gure parte hartzea aktiboagoa izan denez, orain ulertu dugu zein zaila den irakasle izatea". Ikaskideen arreta eta interesa bereganatzea erraza izan ez bada ere, Iraia Zapirainek azaldu du, "aurten Euslider proiektuan guri transmititu ziguten informazio bera gure atzetik datozen ikasleei azaldu diegu". Gainera, Iraiak azpimarratu duenez, "horrelako proiektuak oso interesgarriak dira, beti egiten ez diren gauzak direlako".

"Asko gustatu zait proiektu honetan parte hartzea, gauza asko ikasi ditugu eta talde lana oso garrantzitsua izan da"
Julen Beltran, Eguzkitzako ikaslea

Irakasleen babesa

AEK-ko kideen eta ikasleen inplikazioaz gain, ikastetxeetako irakasleek proiektuaren garapen egokia bermatzeko emandako babesa ere funtsezkoa izan da. Nerea Mitxeltorena Gazteluzarreko Hizkuntza Normalkuntzako Batzordeko kidea da. Mitxeltorenak adierazi du, Euslider bezalako proiektuak ezinbestekoak direla ikasleek gero eta gutxiago erabiltzen baitute euskara beraien harremanetarako. "Gainera, beraiei protagonismoa ematen zaie. Ikasleak ahalduntzen saiatu nahi genuen" , azaldu du Gazteluzarreko irakasleak. Hala ere, mailaren arabera, ikasleen jarrera proiektuarekiko guztiz desberdina dela azaldu du.

Oihana Amundarain Eguzkitza eskolako Hizkuntza Normalkuntzako arduraduna bat etorri da aurretik Gazteluzarreko irakasleak azaldutakoarekin. Amundarainek azaldu du ikastetxeetan euskara autoritateek, hau da, irakasleek, agindutako betekizun gisa ikusten dutela ikasleek. "Proiektu honen bultzatzaileak gazteak direnez, euskara beste bide batetik bultzatzen da eta euskara barruagotik sentitzeko aukera ematen die ikasleei". Eguzkitzako ikaslearen ustez ikasleak gustura aritu dira lanean, bere hitzetan, "esperientzia polita izan baita eta euskararen bizipen positibo batekin markatuta geratu dira". Izan ere, Oihana Amundarainek nabarmendu duenez, ikasleek Korrika Gaztearen inguruko ekintza esanguratsua prestatu dute.

Aurreratzean, beraz, Euslider bezalako egitasmoei esker hizkuntzekiko begirunea bestelakoa izango da. Jarrera aldatzea edo ez ikasle bakoitzaren hautua izango da, baina behintzat aukeraketa egiteko tresna eta informazio baliagarria izango dute eskura. Buruzagitza berriari esker, euskara indartzeko, maitatzeko eta sendotzeko jarraitzaile berriak irabazi dituelakoan, belaunaldi berrietan eragiten jarraituko du Eusliderrek.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Irun Hiria Argazki Lehiaketa Herrikoia

Irungo Argazki Elkarteak (IAE), Irungo Udalaren babesarekin, 35. Irun Hiria Argazki Lehiaketa Herrikoia antolatu du. Bi gai emango dira aukeran: Irun eta gai librea. Nahi duen pertsona orok izango du lehiaketan parte hartzeko aukera, baina egile bakoitzak gehienez hiru obra aurkeztu ahal izango ditu, eta haietako batek, gutxienez, Irun izango du gaitzat. Argazki bakoitzaren atzealdean gaia eta egilearen datu pertsonalak eta telefono zenbakia agertuko dira.

Modalitatea: Zuri-beltzean edo koloretan egindako argazkiak, muntatu gabe; edozein teknika onartuko da.

Formatua: Irudia librea baina argazki paperaren neurria 20X30 zm-koa izango da.

Argazkiak aurkezteko epea: Ekainaren 13ko arratsaldeko 20:00ak arte.

Argazkiak aurkezteko tokiak: IAEko aretoan (Irungo Izaga Kalea, 7), astelehenak 19:30etatik 21:00 ordu arte, edo: 212 posta kutxa. 20302 - Irun

Erakusketa: Erakusketaren inaugurazioa ekainaren 20 an izango da, 19.30etan AFI-IAEko aretoan, eta ekainaren 24ra arte iraungo du, 19:30etatik 21:00ak arte.

Sariak: Trofeoak emango zaizkie gai bakoitzeko lehen hiru sailkatuei bai eta argazki materialez osatutako opariak ere. Partaideek ezingo dute sari bat baino gehiago jaso.

Sari banaketa: Areto berean egingo da ekainaren 24an, 20:00etan.

Uda honetan, kirola nonahi

Kiroletako ordezkari Borja Olazabalek, hiriko zenbait kirol taldetako ordezkariekin batera, UDA 2022 kirol jardueren kanpainaren berri eman du. Ekimenaren helburu nagusia 16 urtera bitarteko herritarrei udan kirolean aritzeko aukera ematea da.

Hiriko kirol elkarteek beren kirol modalitateekin lotutako udako ikastaroak antolatzen dituzte, 16 urtera bitarteko neska-mutilentzat. Aurten, hamazazpi klub hauek antolatuko dituzte kirol jarduerak, hogei diziplinatakoak guztira:

– Santiagotarrak: Piraguismoa ur lasaietan eta ur bizietan, arraunketa aulki mugikorrean, Stand Up Paddle eta errekreozko piraguak.

– Bidasoa KE: Eskubaloia.

– **Central Surf eskola:** Surf.

– Lekaenea KE: Mahai tenisa.

– Zaldiketa: Jaizubia klub hipikoa.

– Real Union, Behobia KE, Mariño KE, San Marcial KE, Landetxa KT: Futbola.

– Bidasoa Atletiko Taldea: Atletismoa.

– Bidasoa XXI: Igeriketa, Cyclo indoor, zumba, funky.

– Irunesa kirol elkartea: Gimnasia erritmikoa.

– Txingudi Errugbi Kluba: Errugbi jokoak.

– Luralai Squash: Squash ikastaroak.

– Badia TP: Tenisa.

– Padel Indoor Bidasoa kluba: Padela.

Antsietatea kudeatzeko tailerra

Antsietatea daukazu? Ez dakizu nola aurre egin? Konekta zerbitzutik antsietateari aurre egiteko tailerra dakarkizuegu.

Tailerra praktikoa izango da eta partehartzaileek estrategiak ikasiko dituzte antsietate momentutan hura kudeatzen jakiteko. Badabidebat zerbitzuaren eskutik izango da. Plaza mugatuak daude, beraz asistentzia aldez aurretik konfirmatu behar da konekta@irun.org postan, 656794372 telefonoan eta @gaztearteanirun Instagram kontuan.

Noiz: Ekainaren 4an, larunbatean.

Ordua: Goizeko 10:30etatik 13:30era.

Non: Martindozenea gaztelekuan.

Sarrera: Dohainik.

Hizkuntza: Elebitan.

Ikasketa gelaren ordutegi berezia

Maiatzaren 7tik ekainaren 28ra bitartean CBA liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du.

Horrela, epe horretan ikasketa gela ondoko ordutegian egongo da irekia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara.

Larunbata: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Igandea: 9:00etatik 13:00etara.

Gainera, CBAren bigarren faseko proiektuaren barruko lehenengo lanak direla-eta, liburutegia eta kulturgunea berrantolatu dira. Maiatzaren 9tik aurrera, ikasketa gela gazteen gunera lekualdatu da, eta IGazte, berriz, ikasketa gelako egungo mintegietan kokatu da.



Ekainaren

3a

Dokumentala

Zer: "Aita Mari" dokumentalak kontatzen du Iñigo Mijangosek eta Iñigo Gutierrezek Stella Maris Berria, arrantzarako erabiltzen ez zen atunontzia, erreskate ontzi bihurtu eta Mediterraneo itsasoan bizitzak salbatzeko prestatu zutenekoa.

Non: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

3tik 5era

Bioterra

Zer: Bioterra produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren Euskadiko azoka.

Non: Ficoban.

Ordutegia: Ostiralean eta larunbatean 10:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 18:00etara.

Sarrera eta parkinga: Doan.

Webgunea: www.bioterra.ficoba.org

4a

Antzerkia

Zer: Mundubatek antolatutako antzerkia. "Los caminos de la vida" antzezlanaren bitartez emakume ausartek euren migrazio prozesuak konpartituko dituzte.

Non: Kabigorri Ateneoan.

Ordua: 19:15ean.

Hizkuntza: Gazteleraz.

12a

Juanma Garate ibilaldi zikloturista

Zer: XI. Juanma Garate ibilaldi zikloturista.

Antolatzailea: Irungo Txirrindulari Elkartea

Ibilbide luzea: 122 km.

Ibilbide laburra: 72 km.

Webgunea: www.lajuanmagarate.com/

12ra arte

Erakusketa

Zer: Arkaitz Saiz argazkilariaren eta Josune Urrutia ilustratzailearen erakusketa Bidasoa ibaiak markatzen duen muga-lerroari buruz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatetara 8:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era.

Sarrera: Doan.

19ra arte

Argazki erakusketa

Zer: Euskadiko Itsasargien Lagunak Kultur Elkarteak Almeriako itsasargiei buruzko argazki erakusketa antolatu du.

Non: Palmera Montero gunean.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 22:00etara. Larunbat eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Jai egunetan itxita.

Sarrera: Doan.

Denbora-pasen emaitzak



9	7	2	4	1	6	8	5	3
3	4	8	2	9	5	7	6	1
5	1	6	8	3	7	4	9	2
7	2	3	6	8	1	5	4	9
4	9	1	5	7	3	2	8	6
8	6	5	9	2	4	1	3	7
6	8	7	3	4	2	9	1	5
1	3	9	7	5	8	6	2	4
2	5	4	1	6	9	3	7	8

Aquatic Landes ur parkeak denboraldi berria hasiko du ekainaren 18an

Aquatic Landes Labenne Océanen kokatutako ur parkea da. Parkeak igerilekuak, txirristak eta bestelako atrakzioak eskaintzen ditu familiako kide guztientzat, etxeko txikienetatik hasi eta gurasoak barne. "Family Space" eremuan, ordea, zure senideekin lasaitzeko aukera izango duzu. Pascal Coste ur parkeko zuzendariak ekainaren 18tik irailaren 4ra arte zabalik egongo den ur unibertso hau ezagutzera etortzeko gonbidapena egin du.

Zein publiko motarentzat da egokia parkea?
Aquatic Landesek 26 txirrista ditu! Gozatu ekintza ezberdinez 3 unibertso handiz osatutako ingurune paradisiakoan. "Family Space" familian lasaitzeko leku aproposa da, harea zurizko aintziran, olatu-igerilekuan edo buiak dauzkan ibai azkarrean. Parkeak haurrentzat bereziki sortutako unibertsoa du: Kids Landes Aventures, aisialdirako 600 m^2 baino gehiago dituen ur beroko gunea. Parkearen bihotzean dagoen atrakzio hau haurrei zuzenduta dago, espazioa erabat irekia da eta etengabe zaindua dago. 12 txirrista zirraragarriz osatutako Adrenaline unibertsoa: 12 metroko erorketa librea, Amazonia, Space bowl, pendulum eta beste atrakzio askok dardarka jarriko zaituzte. Aquatic Landesek doako aparkalekua, janari lasterreko zerbitzuak, 4 piknik gune handi eta hondartzako denda bat ere baditu. Aquatic Landes familia osoarentzat da. Atrakzioak adrenalina bilatzen ari diren pertsonentzat, baita txikienentzat ere, hala nola gurasoentzat.

Non dago parkea?
Labenne Océanen (40530) dago kokatua, Hossegor eta Biarritzetik minutu gutxira, Aquatic Landes Landetako basoaren bihotzean dagoen ur parkerik handiena da, benetako aisialdi eta lasaitasunerako oasia.

Noiz hasi eta bukatuko da 2022ko denboraldia?
Parkea ekainaren 18an, larunbatean, irekiko da eta 2022ko irailaren 4ra arte egongo da zabalik.

Berritasunen bat denboraldi honetarako?
2022ko denboraldi berri honetarako, Aquatic Landes parkeak olatu igerilekuaren gaineko terrazan zure ametsetako eguna edo gaua antolatzeko aukera ematen dizu. Taberna, pintxoak, musika-giroa, animazioa eta atrakzioetarako sarbidea zure nahien arabera. Urtebetetzeei eskainitako eremu berri bat ere eskuragarri dago. Erreserbatzeko eta prezioak lortzeko, jarri gurekin harremanetan: contact@aquatic-landes.com.

Urtebetetzeak antolatzeko gutxienez 8 haurretako taldeak osatu behar dira, sarrerak 19,50 euroko prezioa izango du haur bakoitzeko, urtebetetzea ospatzen duen haurraren eta bere laguntzailearen sarrerak doan izango direlarik. Sarrerak, bazkaria, parkeko maskota eta piknika parkeko mahai esklusiboetan egiteko aukera eskaintzen du. Urtebetetze ospakizun hauek 3 eta 11 urte bitarteko haurrentzat pentsatuak daude.

Parkeak Euskadiko bisitari asko jasotzen ditu?
Aquatic Landes Euskaditik hurbilen dagoen mota honetako parkea da, autobidetik joanda Baiona ondoren kokatuta baitago. Bidasoa eskualdeko bizilagunak parkeko bezeroen zati handi bat izan dira beti, %15aren eta %20aren artean. Taldean zein bakarka etorri ohi dira.

Parkearen berezitasunetako bat Kids Landes Adventures eremua da, ezta?
Bai. 600 m2 baino gehiagoko espazio klimatizatua da, haurrei bakarrik eskainia. Kids Landes Adventures haurrentzako igerileku erraldoia da, 4 txirrista eta abentura zirkuitu batez osatutako jolas-egitura duena. Badu haur txikienak ere freskatzeko eremu bat. Gogoratzekoa da 3 urtetik beherako umeen sarrera doakoa dela.

Zer gehiago esan dezakezu harea zuriko hondartzaz?
Harea zuriko hondartza, bere landaretza exotikoarekin, kokoteroak, itzalkinak eta etzaulkiak. Benetako bake exotikoa Aquatic Landes parkeko olatuen igerilekuaren ondoan. Lasaitu olatuen hotsa entzuten Polinesiako hondartza bikain honetan.

Zein da parkearen ordutegia?
Ekainaren 18tik uztailaren 3ra parkea goizeko 10:00etan ireki eta arratsaldeko 18:00etan itxiko da. Uztailaren 4tik abuztuaren 28ra irekiera ordutegia berdina izango da, baina 19:00etan itxiko da, ordubete geroago.